# 20152019

# udalhauteskundeak

## programa eta zerrendak

**urtarrilak 31, zapatua**
**Zabielen, 17:00etan**

Mutrikun hari gara

ehbildu

Udala zulo beltzetik atera dugu, larrialdi gordinetik, eta sendabidean jarri dugu. Oraindik bide luzea egitea dagokigu, baina asko arindu da bere egoera ekonomikoa

Eta hala ere dexente gauza egin dugu, oinarriak jarri ere bai beste hainbatetan. Herritarrekin hainbat bilera eta elkarrizketa izan dugu, nahiz eta geure akatsak ere egin ditugun.

Denbora hartuko dugu azken lau urte hauetan egin dugunaz eta egin ez dugunaz balorapena egiteko, baina oraingoan PROGRAMAz eta ZERRENDAz aritzea dagokigu.

Horretarako, ehbilduren bilera zabala antolatu dugu, guztiok parte har dezagun eta guztion artean urratsak eman ditzagun.

Arloz arloko PROGRAMAri helduta, bertan agertuko da egindako bidea zein den eta nola har dezakegun parte.

ZERRENDEN kasuan, berriz, honakoa izango da prozedimendua:

1.- Pertsona bakoitzak, bere ustetan, egokienak diren izenak jarriko ditu ondoko orrialdeko taulan.

2.- Bakoitzak bere taula bileran bertan jarriko den ontzian utziko du.

3.- Etortzerik ez lukeenak asteburuan Zubixan jarriko den ontzian utzi dezake.

4.- Jasoko diren taula kopuruaren %10 gainditzen duten izenekin harremanetan jarriko da Zerrenda Taldea.

5.- Bakoitzaren asmoak jakin ondoren, jenero ikuspegia, bakoitzaren perfila eta abarrak kontuan hartuta, otsailean zehar ehbilduk antolatuko duen beste bilera batean zerrenda osoa aurkeztuko du bere onarpenerako, programarekin batera.

Esan beharrik ez dago guztion parte hartzea eskatzen dela.

BILERA, URTARRILAREN 31an, ZAPATUAN, ZABIELEN, arratsaldeko 5etatik 6ar arte.

# ehbilduren ZERRENDA
# EGITEKO ZURE PROPOSAMENA

## ALKATETZARAKO

1 ______________________________

2 ______________________________

## ZINEGOTZITARAKO

3 ..............................

4 ..............................

5 ..............................

6 ..............................

7 ..............................

8 ..............................

9 ..............................

10 ..............................

11 ..............................

12 ..............................

13 ..............................

14 ..............................

15 ..............................

16 ..............................

puntuz puntu

Mutrikun

hari gara

ehbildu